

**GARAPENERAKO LANKIDETZA
PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZAK
EMATEKO ARAUAK EZARTZEN DITUZTEN
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

1. artikulua. Xedea.

Gobernuz Kanpoko Erakundeei diru laguntzak emateko araubidea ezartzea da deialdi honen helburua, erakunde horiek garapenerako lankidetzaprogramak antolatu eta gauzatu ditzaten, garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetze aldera.

Laguntzak diru laguntza modura emango dira, eta honako araudiari lotuko zaizkio: Udalak onartutako araudia, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta bat datozen gainerako lege-xedapenak, eta Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea.

2. artikulua. Onuradunak.

Diru laguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako irabazi-asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundeek, euren jarduerak deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz. Erakundeak, Debagoienan izan beharko dute egoitza soziala edo ordezkaritza, eta administrazio-egitura iraunkorra.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatuaren erakundeak eta haren mende dauden zerbitzuak, Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Toki Administrazioa eta irabazi-asmoa duten erakundeak.

3. artikulua. Ekarki beharreko agiriak.

Eskaerak aurkeztu behar dira honako agiri hauekin:

- a) Diru laguntza eskaera, eredu normalizatuaren arabera (I. Eranskina).
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria. Ziurtagiri horretan helbide sozialari buruzko informazioa agertu beharko da.
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- d) Erakundeak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.
- e) Banku edo aurrezki entitate batek emandako agiria, erakunde eskatzailea kontu korrante baten titularra dela ziurtatuko duena (II. Eranskina).

**BASES ESPECÍFICAS POR LAS QUE SE
ESTABLECEN LAS NORMAS PARA LA
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A PROYECTOS
DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO**

Artículo 1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases establecer el régimen de otorgamiento de subvenciones a organizaciones no gubernamentales, para la organización y consecución de programas de cooperación para el desarrollo, dirigidas a la mejora de las condiciones socioeconómicas de los países en vías de desarrollo.

Las ayudas se concederán en concepto de subvenciones, sujetándose las mismas a la normativa aprobada por el Ayuntamiento, a la Ley 38/2003, General de subvenciones y de las disposiciones legales concordantes, y a la Ley 1/2007, de 22 de febrero de Cooperación para el desarrollo.

Artículo 2. Personas beneficiarias.

Podrán solicitar subvención las Organizaciones o Instituciones No Gubernamentales sin ánimo de lucro y legalmente constituidos, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria. Además, deberán tener sede social o delegación y estructura administrativa permanente en el Alto Deba.

Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria las instituciones y servicios dependientes del Estado, la Administración Autónoma, la Administración local y las entidades con ánimo de lucro.

Artículo 3. Documentación a aportar.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- a) Solicitud de subvención conforme al modelo normalizado (Anexo I).
- b) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco. En dicho certificado tendrá que aparecer información referente a la sede social.
- c) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.
- d) Documentación que acredite estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social y la Diputación Foral.
- e) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta

por la entidad solicitante (Anexo II).

4. artikulua. Balorazio irizpideak.

- a) Proiektua edo jardueraren xedea honako hau izatea: lagundu nahi den herrialdeak duen garatzeko gaitasuna areagotzea. Horretarako, onuradunek parte hartuko dute ekintzan eta, horrela, eurek jarraitu ahal izango dute, komeni den epeetan kudeaketaren ardura hartzen dutenean.
- b) Zuzen-zuzenean erantzutea herrialde azpigaratuetakoz biztanleriaren garapen ekonomiko eta sozialaren beharrei eta, batez ere, gizartearen maila ahulenen funtsezko beharrei.
- c) Lehenetsuna emango zaie hezkuntza eta osasun arloko proiektuei, bai eta proiektu produktiboei ere, alegia, denborarekin autofinantzatzera irits daitezkeenei.
- d) Bereziki baloratuko da emakumeen ahalduntzea eta inplikazioa sustatzen duten proiektuak.

5. artikulua. Diruz laguntzeko gastu kontzeptuak

Egonaldien, alokagairuen, bidaien, dieten eta abarren gastuek ezin dute aurrekontuaren %20 gainditu.

6. artikulua. Aurrekontua.

Diru laguntza deialdi honen zenbatekoa 25.000 €-koa izango da, eta udal-aurrekontuko 0701.490.313.90.01 partidatik emango da. Aurrekontuan zehaztutako kopuruaren %10 gorde egingo da, urtean zehar gerta litezkeen larrialdi-egoerak edo beste egoera batzuk gainditzera bideratzeko.

7. artikulua. Gastuen frogagiriak.

Araudi honek dioenaren arabera emandako diru laguntza jasotzeko, ezinbestekoa izango da diruz lagundutako proiektua egina izatea eta Udaletxean ondoko agiriak aurkeztea:

- Justifikazioaren memoria (III. Eranskina)

Justifikatuko diren gastu guztiek diru laguntza jaso duen urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dira. Taldearen izena ere bertan agertu behar da.

Agiri hauek 2015eko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira.

Artículo 4. Criterios de valoración.

- a) Que el proyecto o actuación vaya dirigido a incrementar la capacidad de desarrollo de la población objeto de ayuda, haciendo participar en la acción a los beneficiarios de tal forma que puedan continuar, una vez revierta su gestión en ellos dentro de los plazos que convenga.
- b) Que responda directamente a las necesidades de desarrollo económico-social de la población de los países subdesarrollados y en particular a las necesidades fundamentales de las capas más desfavorecidas.
- c) Se priorizarán proyectos en los siguientes campos: educativo, sanitario y proyectos productivos, esto es, que tiendan a ser autosuficientes en el tiempo.
- d) Se valorarán especialmente aquellos proyectos que potencien la implicación y la promoción de la mujer.

Artículo 5. Conceptos subvencionables.

Los gastos derivados de la estancia, alquileres, dietas, viajes... de los cooperantes no podrán superar el 20% de la cantidad solicitada.

Artículo 6. Presupuesto.

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de concesión asciende a 25.000 €, imputables a la partida presupuestaria 0701.490.313.90.01. Se reservará un 10% de la cantidad presupuestada para emergencias u otras situaciones que pudieran surgir a lo largo del año.

Artículo 7. Justificación de gastos.

Para percibir las subvenciones concedidas de acuerdo con las prescripciones de esta norma, será preciso presentar al Ayuntamiento la siguiente documentación:

- Memoria justificativa (Anexo III)

Todos Los gastos que se justifiquen deberán estar datados durante el año en que se ha concedido la subvención, y corresponder al proyecto objeto de subvención. También deberán estar a nombre de la entidad solicitante.

Si surge alguna duda en torno a las facturas, se le podrá solicitar una información más detallada.

Esta documentación se deberá presentar antes del

15 de enero de 2015.

8. artikulua. Entitate onuradunaren betebeharrak.

Oinarri orokorretako 15. artikuluan jasota dauden betebeharrez aparte, Garapenerako lankidetzaprogrametarako diru laguntza jaso duen entitate onuradunak bere proiektuaren berri emango du Aretxabaletan, herritarrak sensibilizatzeko helburuarekin. Dibulgazio ekimen hori Gizarte Zerbitzuarekin batera egingo da.

9. artikulua. Euskararen erabilera.

Aurkeztutako dokumentazioa (diru laguntzaren eskaera eta justifikazioa) eta jardueraren ondorioz iragarri behar den edozein agiri edo idazkik euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du. Gauza bera gertatuko da bozgorailu edo antzeko tresnen bidez adierazitako mezuekin. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea aukeratzen denean lehentasuna euskarari eman beharko zaio.

Artículo 8. Obligaciones de la entidad beneficiaria.

Además de las indicadas en el Artículo 15 de las bases generales, la entidad beneficiaria de las ayudas para proyectos de cooperación dará a conocer el proyecto con el fin de sensibilizar a la población de Aretxabaleta. Dicha acción divulgativa se hará en coordinación con los Servicios Sociales.

Artículo 9. Uso del euskera.

Toda la documentación impresa que vaya a ser presentada (solicitud de la ayuda y justificación de la misma) y publicada, deberá estar redactada en euskera o en las dos lenguas oficiales, así como los mensajes emitidos por altavoces u otro medio similar. Cuando se opte por utilizar las dos lenguas oficiales se dará prioridad al euskera.